

Ebazpena: R057/2024

Espedientea: E010/2022

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 16an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofia Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek osatzen dute. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean, AFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren bidez zehaztu nahi baita zeinek duen lan-etekinen gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (aurrerantzean, PFEZ) dela-eta egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena. EAGk 2019. ekitaldian egin zituen atxikipen horiek. Gatazka hori 10/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

- 1.- EAG sozietatea ez da Espainiako lurraldeko egoiliarra; jakinarazpenetarako egoitza Madrilen du. Publizitatearen alorrean egiten du lan, eta Espainian Madrilen, Valladoliden eta Araban ditu ordezkariak.
- 2.- 2018ko eta 2019ko ekitaldietan, EAGk ZAEAn deklaratu eta sartu zituen AMIAri (aurrerantzean, langileari) lan-etekinak ordaintzearen ondorioz PFEZean egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

3.- 2020ko otsailaren 27an, EAGk zuzenketa-eskaera aurkeztu zuen, eta ZAEARI eskatu zion AFARI transferitzeko 6.510,55 eta 12.181,41 euroko zenbatekoak, ZAEARI ordaindutakoak 2018ko martxoaren 20tik abenduaren 31ra bitartean eta 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, hurrenez hurren, langileari ordaindutako lan-etekinengatik PFEZean egindako atxikipen eta konturako sarrerak zirela kausa. Alegatu zen langilea entitate horrek Araban zuen lantoki batera adskribatuta egon zela ekitaldi horietan.

4.- 2021eko ekainaren 8an, ZAEAK autolikidazioaren zuzenketa ezesteko erabakia hartu zuen, bere iritzian, ez zelako egiaztatu eskatutako atxikipenak 2018ko eta 2019ko ekitaldietan entitate horrek Araban zuen lantoki horretara adskribatutako langile bati zegozkiola.

Jarraian, 2021eko ekainaren 10ean, ZAEAK 2021eko ekainaren 8ko ebazpena jakinarazi zion AFARI, EAG sozietatearen transferentzia-eskaera ezesten zuena.

5.- 2021eko irailaren 3an, AFAk ZAEARI jakinarazi zion ados zegoela 2018ko ekitaldian egindako PFEZaren atxikipenei eta konturako sarrerei buruzko transferentzia-eskaera ezestearekin, baina ez 2019ko ekitaldian egindako atxikipenen sarrerari zegoekionez.

Ondorioz, AFAk, egun horretan bertan, 2019ko ekitaldiaren ezespenaren aurkako errekurtsua jarri zuen, uste baitzuen atxikipenak osorik Araban emandako zerbitzuei zegozkiela eta, beraz, AFAn ordaindu behar zirela.

6.- 2021eko irailaren 10ean, ZAEAK AFARI jakinarazi zion 2021eko ekainaren 8ko ezespen-erabakia berretsi zuela, eta bidalketa-eskaera amaitutzat eman zuen.

7.- 2021eko azaroaren 10ean, AFAk inhibizio-errekerimenduaren berri eman zion ZAEARI, EAGk langileari ordaindutako lan-etekinen gainean PFEZa zela-eta 2019an egindako konturako atxikipenak ordainarazteko eskumenari zegokionez.

8.- 2021eko abenduaren 9an, ZAEAK AFARI jakinarazi zion inhibizio-errekerimenduari uko egin ziola, eta, era berean, eskuduntzat jo zuen bere burua; izan ere, haren ustez, AFAk transferitzeko eskatu zituen atxikipenak telelanaren ondoriozko lan-etekinenak ziren, eta, ondorioz, langilea entitatearen Madrilgo lantoki batera adskribatuta zegoenez, ordainarazpena ZAEARI zegokion.

9.- 2022ko urtarrilaren 10ean, AFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean, langilearen 2019ko ekitaldiko atxikipenak ordainarazteko eskumenari buruz, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da ZAEAK alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek honako eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Aplikatu beharreko araudia eta ordainarazteko eskumena.

PFEZa dela-eta lan-etekinen gainean egindako konturako atxikipenak ordainarazteko administrazio eskuduna zehazteko, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan, 2017ko abenduaren 30etik aurrera indarrean dagoen idazkeran:

«7. artikulua. Lan-etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla».

3.- EAGren eta langilearen jarrera.

3.1.- EAGk 2020ko otsailaren 27an ZAEari igorritako transferentzia-eskaeran, entitateak honako hau adierazi zuen:

1. Langileak lan-harremana izan zuen EAGrekin 2016ko uztailaren 1etik aurrera.
2. 2018ko martxoaren 20an, langile hori Gasteizera (Araba) joan zen bizitzera, eta egun horretan erroldatu zen bertan.

3. 2019ko abenduaren 9an, langileak altaren zentsu-aitorpena aurkeztu zuen AFAko zergadunen errolda bakarrean.

4. PFEZa dela-eta egindako konturako atxikipenak 2018an eta 2019an ere ZAEAn ordaindu zituen enpresak, lan-harremana hasi zenetik egin izan duen bezala.

Arestian azaldutakoagatik, EAGk ZAEARI eskatu zion AFArekin egin beharreko kudeaketak egin zitzala, eta aipatutako zuzenketa-eskaera aurkeztu zuen, langileari 2018ko martxoaren 20tik 2019ko abenduaren 31ra arte PFEZa dela-eta egindako konturako atxikipenen zenbatekoak AFAn ordaindutzat jotzeko.

3.2.- Ondoren, EAGk 2020ko abenduaren 17an aurkeztutako idazkiaren bidez erantzun zion ZAEAREN 2020ko abenduaren 14ko dokumentazio-errekerimenduari —langilea Arabako lantoki batera adskribatuta zegoela justifikatzea eskatzen zuen—, eta EAGk berriro azaldu zituen transferentzia-eskaeran bildutako datuak. Hala ere, gaineratu zuenez, «enpresak 2020ko urtarrilera arte ez zuen gertaera horien berri izan, eta lantokiari 2020ko urtarrilean eman zion alta Arabako probintziako Gizarte Segurantzari. Izan ere, Gizarte Segurantzak ez du onartzen lantokiei edo langileei atzeraeraginezko ondorioekin ematea alta».

3.3.- Bestalde, langileak 2020ko otsailaren 6ko idazkiaren bidez erantzun zion ZAEAREN errekerimenduari —2018ko ekitaldiko PFEZaren autolikidazioari zegokionez, dokumentazio osagarria eskatzen zuen, langileak Araban jarduera ekonomikoa izan zuela frogatzeko—. Honela dio erantzunak:

«Urrunetik egiten dudanez lan, ez daukat kokapen jakin batera mugatuta dagoen lan-kontraturik; etxetik egiten dut lan. Gainera, ez daukat alokairu-kontraturik, senide batekin bizi naizelako egun.

Nolanahi ere, dokumentazio osagarri hau eransten dut, nire ohiko bizilekua Araban dagoela eta jarduera ekonomikoa bertan egin dudala egiaztatzeko:

1- Enplegatzaileak sinatutako dokumentua, Arabako nire bizilekutik haientzat lan egin dudala adierazten duena. Helbide-aldaketa 2018ko otsailaren 22an jakinarazi nion enpresari. | Dokumentua ingelesez, enpresaren hizkuntza ofiziala.

2- FedExen ordainagiriak, EAGk nire helbidera bidalitako materialenak, 2018ko maiatzaren 23 eta 2018ko abenduaren 20koak. (...)».

4.- AFAREN JARRERA.

AFAk azaldu duenez, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua arau orokor bat ezartzen du lan-etekinak kokatzeko. Lan egiten den lekuan kokatzen ditu, eta lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean lan egiten den kasuetan bakarrik aplika daiteke etekin horiek langilea adskribatuta dagoen lantokiaren kokapenean lortu direlako presuntzioa.

Gatazka honetan, AFAREN iritziz, ez da presuntzio hori aplikatzen, langileak Araban garatzen duelako jarduera. Honako arrazoi hauek ematen ditu:

1) Langileak Araban izan zuen ohiko bizilekua 2019ko ekitaldian, 2018ko martxoaren 20tik baitago Gasteizen erroldatuta, eta 2019ko PFEZaren aitorpena AFAn aurkeztu zuen.

2) Ez dago inolako zantzurik esateko langileak jardueraren zati bat Arabatik kanpo egin zuela 2019ko ekitaldian.

3) Langilea Madrilgo lantokira adskribatzea okerra da, EAGk aitortzen duen bezala.

Horrela, AFAk uste du langileak zerbitzua eman zuen lekua behar bezala dagoela zehaztuta: Arabako Lurralde Historikoa.

AFaren arabera, nahiz eta egiaztatutzat eman langilearen zerbitzu batzuk 2019ko ekitaldian lurralde erkidean eman zirela, eta, beraz, lotunea langilearen adskripzio-zentroa izango zela, atxikipenak ez ziren lurralde horretan ordaindu behar. Izan ere, «EAGk bere kudeaketa fiskaleko arloak aurkeztutako dokumentuan onartzen duen legez, hutsegite bat zela eta, Madrilgo lantokira adskribatuta zegoen».

Bestalde, ZAEAk inhibizio-errekerimenduari uko egiteko azaldutako argudioari dagokionez (auzitan diren atxikipenak egin zaizkion langileak telelanean ziharduen bere etxetik, Gasteizen), AFAk alegatu du premisa berri horrek, epez kanpoko izateaz gain, ez duela informaziorik ematen 2019ko ekitaldiari buruz. Edonola ere, AFaren iritziz, arrazoibide horrek ez du aldatzen 2019ko ekitaldiari dagokion lotunea, auzitan diren atxikipenei dagokienez; izan ere, urruneko lanaren egoera lanaren osagarri bat besterik ez litzateke izango.

Aurreko horretatik, AFAk ondorioztatzen du 2019ko ekitaldian, auzitan diren atxikipenak egin zaizkion langileak Arabako Lurralde Historikoan eman zuela erabat zerbitzua, eta, hortaz, atxikipenak AFAn ordaindu behar zirela, adskribatuta zegoen lantokia edozein zela ere.

5.- ZAEAREN jarrera.

Bestalde, ZAEAk adierazi duenez, administrazio honek jarduketetan zehar lortutako informazioaren arabera, langileak 2016ko uztailetik eman zuen zerbitzua lurralde erkidean, Madrilgo lantoki batera adskribatuta egonik. Orobat, langile horrek Madrilgo lantokira adskribatuta jarraitu zuen 2018ko eta 2019ko ekitaldietan.

ZAEAk azaldu duenez, EAG entitateak jakin gabe, 2018ko martxoaren 20an langilea Gasteizen erroldatu zen, eta 2019ko abenduaren 9an AFAko zergadunen erroldan alta eman zuen. Dena den, 2020ko urtarrilera arte EAGk ez zion alta eman Arabako probintziako lantokiari Gizarte Segurantzari, eta hara adskribatu zuen langilea. ZAEAREN ustez, entitateak langilea erroldatuta zegoela ez zekiela argitzeak pentsaraz lezake ez dela zerbitzua ematen den lekuan aldaketarik egon.

ZAEAk adierazi du erroldatzeak eta altaren zentsu-aitorpenak ez dutela frogatzen langile hori foru-lurraldeko lantoki batera adskribatuta dagoenik, entitateak une horretan ez zuelako Gizarte Segurantzaren kotizazio-konturik Araban.

Izan ere, ZAEAREN ustez, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua ez du ezartzen lan-atxikipenen lotunea direnik egoitza fiskala, ohiko bizilekua eta, jakina, langilearen erroldatzea —AFAk horiek aurkeztu ditu frogara gisa—; aitzitik, lana benetan egiten den lekua hartzen da kontuan, ordainarazteko eskumena zein administrazioak duen zehazteko, eta, ZAEAREN arabera, AFak ez du inguruabar hori egiaztatzen.

ZAEAREN iritziz, AFak aurkeztutako frogekin ezinezkoa da zalantzarik gabe esatea langileak oso-osorik Arabako foru-lurraldean eman duela zerbitzua —bertan ei zuen ohiko bizilekua 2019an eta, ondorioz, han aurkeztu du PFEZAREN aitortzea—.

Bestalde, lana edo zerbitzua telelanaren bidez egiten denean, Ekonomia Itunak ezartzen du lana langilea adskribatuta dagoen lantokian egin dela ulertuko dela. Orduan, kasu horretan ere, 2019ko ekitaldian lantokia Madrilen egonenez, atxikipenak ordainaraztea ZAEARI dagokio.

Azken batean, AFak ez du egiaztatzen eztabaidagai diren atxikipenei loturiko lana Arabako foru-lurraldean egin denik, eta, horregatik, ZAEAREN iritzian, Itunaren 7.Bat.a) artikuluan ezarritako ordezkotako araua aplikatu behar da. Horren arabera, lana edo zerbitzua langilea adskribatuta egon zen lantokia kokatuta dagoen lurraldean eman zen, hau da, Madrilen.

6.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

6.1.- Langileek lantoki batera adskribatuta egon behar dute, dela aurrez aurreko lantoki batean lan egiten dutelako, dela lana urrutitik egiten dutelako (telelana eginez gero).

Horretarako, lantoki jakin batera adskribatzea enplegatzailearen esku egongo da. Hark erabakiko du zer lantokitara adskribatuko dituen langileak. Hala eta guztiz, langileek berariaz jakin behar dute zein zentzura dauden adskribatuta kontratuaren bidez, eta gerora egin daitezkeen aldaketen berri izan behar dute, haiei bidalitako jakinarazpenaren bidez.

Arbitraje Batzordearen 2023ko irailaren 28ko 80/2023 Ebazpenak (26/2017 espedientea) honako hau xedatu zuen lantokiari buruz:

«Legeria soziala eta legeria laborala ez datoz bat langilearen adskripzio-zentroa eta langileak zerbitzua ematen duen edo lan egiten duen eremu geografikoa zehazteko orduan.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita eskusibotasun-araubidean ere, edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta adskribatuta dagoen lantokiaren

kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Horrenbestez, aipatu desadostasunaren ondorioz, posible da lurralde erkidean zerbitzuak emanda ere, langile bat foru-lurraldeko lantoki batera adskribatuta egotea, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua onorioetarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez adskripzio-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe adskripzio-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioen gaineko atxikpenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak langilea «adskribatuta dagoen lantokia» aukeratu du; horrek eskatzen du enplegatzaileak langilea «adskribatzeko» borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrora.

Nahiz eta 28/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua arabera langileak urrutiko lana egiteko aukeratutako lekua identifikatu behar duen, adskripzio-lantokiaren irizpidea aukeratzen da oraindik lan-prestazioaren gaineko atxikpenak ordainarazteko eskumena zehazteko».

AFaren arabera, «langilea Madrilgo lantokira adskribatzea okerra da, EAGk aitortzen duen bezala». Hala ere, EAG entitateak ZAEAr aurkeztutako idazkietan

azaltzen duenez, «enpresak 2020ko urtarrilera arte ez zuen gertaera horien berri izan, eta lantokiari 2020ko urtarrilean eman zion alta Arabako probintziako Gizarte Segurantzari. Izan ere, Gizarte Segurantzak ez du onartzen lantokiei edo langileei atzeraeraginezko ondorioekin ematea alta». EAGk aipatzen dituen gertaera horiek erroldatzea eta langileak AFaren erroldan alta emateko zentsu-aitorpena dira. Hau da, enpresak egindako adierazpenetatik ezin da ondorioztatu langilearen adskripzioa okerra izan denik.

Ondorio horietarako, antolamendu espezifiko duen eta lan-agintaritzaren aurrean alta emanda dagoen (2020ra arte ez zen eman) ekoizpen-unitatea lantoki gisa hartuta, eta kontuan izanda langileak lantokira adskribatzea enplegatzaillearen borondatearen esku dagoela, eta, gainera, zerbitzuak emateko eremu geografikoa eta lantokiaren kokapen geografikoa desberdinak izan daitezkeela, ez dugu aintzat hartu behar AFak alegatutako balizko zehaztasun eza. Orduan, 2019ko ekitaldian langilea adskribatuta zegoen lantokia —gatazka honetan haren atxikipenez ari gara— EAG erakundeak Madrilen zuena zen.

6.2.- Ekonomia Itunaren 7. artikulua arau orokor bat jasotzen du lan-etekin gaineko atxikipenen harira: lana edo zerbitzuak ematen diren lurraldeko administrazioari bakarrik dagokio atxikipena galdatzea. Ondorioz, lanak edo zerbitzuak egiteko lekuaren irizpidea lanak lurralde bakar batean —foru-lurraldean edo lurralde erkidean— egiten direnean izango da aplikagarria.

Aitzitik, lanak edo zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz lurralde erkidean egiten direnean, edo non egin diren zehazterik ez dagoenean, beste arau bat aplikatuko da. Kasu honetan, lana edo zerbitzua langilea adskribatuta

dagoen lantokia dagoen lurraldean ematen dela ulertuko da, eta, horrenbestez, atxikipenak adskripzio-zentro hori dagoen tokiko administrazioari esleitu behar zaizkio.

Azkenik, Ekonomia Itunaren 7. artikulua ezartzen duenez, telelanaren kasuan ere, lana edo zerbitzua langilea adskribatuta dagoen lantokian egin dela ulertuko da.

Arbitraje Batzordeak, besteak beste, 2023ko martxoaren 22ko 29/2023 Ebazpenean (11/2016 gatazka) ebatzi zuen bezala, «Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluko lan-etekinen gaineko atxikipenak administrazio bati edo besteari esleitu behar zaizkio oso-osorik».

Aztergai dugun gatazkaren arabera, langileak lurralde erkidean egin zuen lan 2016ko uztailetik 2018ko martxoaren erdialdera, Madrilgo lantokira adskribatuta.

Bestalde, espedientean jasota dauden ebidentziekin bat, langilea 2018ko martxoan joan zen Arabara bizitzera. Hala eta guztiz, gatazkan dauden administrazioetako batek ere ez du inolako frogarik aurkeztu 2019ko ekitaldian lana non egin zen egiaztatzeko —prestazioa eman zen leku fisikoa—, eta hori zuzenbidean onartutako frogabideen bidez justifika zitekeen. Adskripzio-zentroarekin batera, faktore hori erabakigarria izango zen eskumena zehazteko.

Illo beretik, AFAk, hots, gatazka planteatu duen zerga-administrazioak, ez du inolako froga-ahaleginik egin langileak Araban lan egin zuela egiaztatzeko, nahiz eta hori izan haren asmoa. AFAk, besterik gabe, langilearen bizilekua,

erroldatzea eta 2019ko PFEZaren «aitorpena» aurkezteko tokia aipatzen ditu alegazioetan.

Horri dagokionez, argi dago langilearen erroldatzeak, PFEZaren autolikidazioa aurkezteko tokiak edo zerga-errolan alta emateak ez duela garrantzirik; izan ere, lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko orduan, lana non egiten den edo langilea zein lantokira dagoen adskribatuta zehaztea da funtsezkoa.

Modu berean, aurreko argudioaren alde eginez, AFAk azpimarratu du ez dagoela inolako zantzurik esateko langileak jardueraren zati bat Arabatik kanpo egin zuela 2019ko ekitaldian, baina, halaber, AFAk berak ez du ebidentzia adierazgarriarik aurkeztu (langileak etxetik bezeroen jarduera-tokira egindako joan-etorriak eta abar) langilearen jarduera Araban egin dela egiaztatzeko. Are gehiago, 2020. urtera arte ez zuen lantokirik lurralde horretan.

6.3.- Azkenik, AFAk aditzera ematen duenez, auzitan diren atxikipenak egin zaizkion langileak 2018ko ekitaldian Gasteizko etxetik telelana egin izanak, ZAEAk dioen bezala, ez du aldatzen gatazkaren xede diren 2019ko atxikipenen lotunea, AFAk uste baitu lantokiak 2018tik egon behar zuela Araban.

Telelana langilearen etxean edo hark aukeratutako lekuan egiten den urrutiko lana da. Hala, ZAEAk hori argudio gisa erabili izanak, 2021eko abenduaren 9ko erantzunetik aurrera —AFAREN inhibizio-errekerimendua baztertzen da bertan—, ez du eragozten egoera hori gogoan izatea atxikipenak ordainarazteko lotunea ezartzerakoan. Nahiz eta, egia esan, ZAEAk 2020ko hasieratik izanda informazio hori eskura, arduratsuagoa izango zatekeen lehenago planteatzea.

Ondorio horietarako, informazio hori jasota dago langileak 2020ko otsailaren 6an emandako idazkian. Bertan azaltzen duenez, «urrunetik egiten dudanez lan, ez daukat kokapen jakin batera mugatuta dagoen lan-kontraturik; etxetik egiten dut lan». Eztaba daezina da 2018ko ekitaldiko PFEZari buruzko errekerimendu bati erantzunez egiten dela, eta, oro har, ekitaldi jakin bateko frogak ezin direla beste ekitaldi batzuetara zabaldu.

Hala ere, langilearen idazkiaren data «2020ko otsaila» denez, eta etxetik egiten den urruneko lan-egoerari buruz «orainaldian» ari denez, zalantzan jarri behar dugu telelaneko egoera horrek ez ote duen 2019ko ekitaldian ere iraun.

Horrela, 2019ko ekitaldian lanak edo zerbitzuak osorik telelanaren bidez egin badira, langilea adskribatuta zegoen lantokian egin direla ulertuko da, alegia, ekitaldi horretan, Madrilgo zentroan.

Aldiz, zerbitzuen zati bat telelanaren bidez egin izan balu, eta beste zati bat lantokian edo lurralde jakin batean (foru-lurraldean edo lurralde erkidean) modu presentzialean, eta lan horiek elkarren osagarri edo garrantzi gabekoak izan gabe, bi aukera egongo lirатеke: telelanaren araubidean egin gabeko lana foru-lurraldean edo lurralde erkidean egin izana.

Lehenik eta behin, lan presentziala foru-lurraldean egin izan balitz, horrek esan nahiko luke urrutiko lana lurralde erkidean egin zela, eta, beraz, Ekonomia Itunaren 7. artikularen arabera, langilearen adskripzio-lantokia dagoen lurraldean, hau da, Madrilan, osorik egindakotzat hartuko lirатеke lan horiek.

Aitzitik, lan presentziala lurralde erkidean egin izan balitz, lan presentziala eta urrutiko lana lurralde berean kokatuko lirateke, hots, lurralde erkidean; kasu horretan, atxikipenak ZAEari legozkioke.

Aurreko horretatik ondorioztatzen da, aztertzen ari garen gatazkan, atxikipenak ZAEari egotziko zaizkiola, salbu eta 2019ko ekitaldian lanak oso-osorik presentzialki egin badira EAEn.

6.4.- Hortaz, beste frogarik ezean (bereziki, lan-kontratua edo -kontratuak, egindako lanaren izaera, lana benetan non egin den, edo langileak aurkeztutako agiriak), ezin da zehatz-mehatz zehaztu zein lurraldetan egin ziren lanak edo zerbitzuak.

Azken batean, gatazkaren mamiari dagokionez, Arbitraje Batzordeak ondorioztatu behar du AFAk froga-oinarri nahikorik gabe formulatu duela uzia. Eta, azkenik, Arbitraje Batzorde honen ustez, lana benetan non egin den egiaztatzeko froga nahikorik ez delako eman, eta hainbat hipotesi kontuan hartuta —lana EAEn bakarrik egin dela, edo lurralde erkidean eta EAEn, edo telelanean diharduela oraindik ere (edo ez)—, ezin da zehazki esan lana non egin den 2019ko ekitaldian. Orduan, Ekonomia Itunaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, «lana edo zerbitzua langilea adskribatuta dagoen lantokia dagoen lurraldean ematen dela ulertuko da», hau da, lurralde erkidean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari dagokiola EAG erakundeak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta egindako konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, AMIAri 2019ko ekitaldian lan-etekinengatik ordaindutako zenbatekoen gainean.

2.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta EAGri jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.